


LIBURUTEGIAK

2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Sarrera



Adiskide eta lankideok:

Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearen urteroko aldizkaria duzue eskuartean edota, ziurrago, pantaila aurrean. Ez da lehenengo aldia horrela gertatzen denik, baina Koronavirusaren eraginez pantailaren indarra asko hazi da. Esanguratsua da, halaber, paperezko liburuek uste genuena baina hobeto eutsi diotela egoera latz honi eta “betiko” liburuen edertasuna maite dugunok pozik hartu dugu berria. Liburuzainak egiten ari zareten ahalegina zuon etxeak irekita mantentzeko ezinbesteko ekarpena izan da horretarako eta herri arduradunon eta herritarron esker ona merezi duzue.

Hutsegite handia litzateke, ordea, pentsatzea, osasun-egoera konpontzen edota gutxienez normaltzen denean, betikora itzuliko garenik. Egia da iazko martxo/apirilean aurre ikusten ziren eraldaketa erradikal eta apokaliptikoak ez direla gertatuko, baina, denbora beharko dugun arren neurria hartzeko, aldaketa garrantzitsuak gertatuko dira bizi dugun pandemiaren ondorioz. Hilabete batzuk, inork ezin du aurreikusi gutxi edo asko, beharko ditugu ohiko bizimodua berreskuratzeko eta gure lana eta gizarteari eskaintzen diogun zerbitzuaren inguruan hausnartzeko erabili beharko genuke denbora tarte hori.

1936ko gerraostean Jesus Galindez abertzaleak Amerikan aurkitu zuen aterpe eta heriotza. Asko idatzi zuen eta bere esaldi bat geratu zait buruan: “erbesteak on egin digu euskaldunoi”, kanpora ateratzeak errealitate anitz eta konplexuak behatzera behartu zituelako exiliatuei. Friboloa eta krudela litzateke hainbeste heriotza eta min sortu duen pandemiari buruz antzeko zerbait esatea, baina egia da, liburutegien kasuan, duela ia hamazazpi urte hasitako elkarlan bidearen egokitasuna inoiz baino begi bistakoa dela. Hiru esparrutan nabaritu da bereziki lankidetzak: katalogazioan, mailegu-politikan eta komunikazioan. Katalogo bateratuak eta liburutegien arteko maileguak giza eta diru baliabideak aurrezteko eta era

egokiagoan erabiltzeko aukera ematen dute. Autoritate elebidunen Katalogoak erraztu egiten ditu bilaketak eta lanen kokapena. Komunikazioa sareak, bere aldetik, hobetu behar dugun arren, jarrera bateratuak eskaintzea posible egin du eta liburutegien errealitatea indartu du herritarren aurrean. Hau guztiaren ikur garrantzitsuena, eguneroko lanarekin batera, eLiburutegiak hartu duen tamaina izan da. 2019. urteko hilerik onenean, abenduan, 7.328 mailegu egin genituen, 2020ko apirilean, aldiz, 27.704 eta abenduan 13.366. Ez genuke ahaztu beharko, dena den, Irakurketa Publikoko Sarearen maileguen % 10etik behera jarraitzen duela egoten mailegu elektronikoa.

Errealitate horiek ondo baino hobeto erakusten dute liburutegiek, izaera hori galdu gabe, zeregin berriak hartu behar dituztela: dokumentazio-zentro izan behar dute, baita irakurleen topagune ere, bazkideen bidaide dira eta haien ohitura, premia eta portaeren aldaketetara egokitzen jakin behar dute. Esperanza Iñurrietak, EHUren Unibertsitate Liburutegiko zuzendariak, esan berri du, garrantzitsuagoa dela zer eskaintzen dieten liburuzainek erabiltzaileei, liburutegian bertan dauden baliabideak baino. Gauza asko eskatzen zaie liburutegiei eta liburuzainei, gehiegi beharbada eta sarri ez zaie eskaintzen ordain egokirik.

Urte txarra izan zen iazkoa argitaletxeentzat, beste arlo batzuetan bezala, zineman esate baterako, ez zirelako ausartu liburu asko kaleratzen, liburu dendak itxita zeudelako eta herritarrok mugimendua mugatuta genuelako (dugulako) eta alde horretatik katalogo bateratua, proportzioan, gutxi hazi zen 2020an eta gauza bera gertatu zen eLiburutegiaren eskaintzarekin. Egoerak behartuta, dena den, ordura arte liburu elektronikoari bizkarra emanda bizi ziren hainbat argitaletxek urrats hori ematea erabaki dute eta espero dugu gehiagok jarraitzea aurtengoan. Aurrerapen hori garrantzitsua da orokorrean, baina, bereziki, euskarazko edizioaren kasuan, eskaintza digitala urriagoa delako hizkuntza horretan gaztelaniaz baino. eLiburutegiaren web-orria eta aplikazioa berritzen ari gara, urte amaierarako egongo omen da eta eduki berriak ere sortzen ari gara eskaintza aberatsagoa izan dezan.

Ekarpen garrantzitsu bi eman dira 2020. urtean. Alde batetik, Bilboko Maite Albiz Emakumeen Dokumentazioa Zentroak eta haren 7.000 liburuk bat egin dute sarearekin. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Lakua auzoan eta beste toki batzuetan duen liburutegi sarea ere EIPSan integratu da. Beste urrats batzuen oinarria dugu pausu hau, 200.000 ale berri gehitzeaz gain gure katalogora. Horretaz gain, Gasteizko Arte eta

Ogibideen Eskolako liburutegien katalogazioa burutu dugu eta gauza bera egin da Eibarko Armeria Eskolako liburuekin ere.

“Hurrengo urtean Jerusalemen” omen da munduan zehar sakabanatuta dauden juduen Pazko Eguneko aldarria. Euskadiko Liburutegi Digitala nahi baino gehiago ari zaigu atzeratzen. Zuotako batzuk izango zenuten, dagoeneko, antolatu dugun zerbitzu berriarekin harremana, iaz plazaratu genuen digitalizazio deialdia dela medio. Aurten ere kaleratuko dugu deialdia, baina uste baino nekezagoa egiten ari zaigu eduki guztiak bateratzea eta oinarri informatikoa egokitzea. Hurrengo urteko boletinean herritarren eskura izango da.

Eusko Jaurlaritzak hiru deialdi ditu udal liburutegiei laguntzeko: Teknologia berriak ezartzekoa, Irakurzaletasuna bultzatzekoa eta funts-berriak erosketara zuzendutakoa. Azken horretan egin dugu 2021eko aurrekontuan ahalegin handiena. Alde batetik, berriro igo dugu diru-kopurua eta guztira 1.100.000 euro eskainiko diegu udal liburutegiei haien apalak hornitzeko (2019an 670.000 euro izan ziren). Bestetik, udalek beraiek jarri beharreko proportzioa jaitsi egin dugu era horretan ale gehiagoren erosketa errazte aldera. Pentsatzen dugu zenbaki horiek egonkortzeko gai izango garela eta gure ahaleginak irakurzaletasunaren esparrura bideratu beharko ditugula. Hainbat txosten eskatu ditugu 2020an bide horretan, aditu eta azterketa-etxeei, eta, liburuzain eta maisu-maistreakin batera, ahalegin bateratua jorratu nahi dugu irakurzaletasunak toki garrantzitsua izaten jarrai dezan gure gizartean. Liburutegien Aholku Batzordea, iaz berritu genuena, behin bakarrik bildu zen 2020an, baina zeresan ugari izango du lan horretan. Lankidetzak delako gure asmoak gauzatzeko tresnatik garrantzitsuena.


Gasteizen, 2021eko maiatzaren 5a

Mikel Aizpuru Murua

Kultura Ondarearen zuzendaria


ESTATISTIKAK

eLiburutegia



Pandemiak

markatutako urtea



2020ko ekitaldiari buruzko eLiburutegiaren datu estatistikoak pandemiak eta COVID-19k eragindako osasun-egoerak baldintzatzen ditu. Martxoaren 16tik maiatzaren 2ra biztanle guztiak konfinatu eta liburu-dendak eta liburutegiak itxi zirenez, aisialdirako eta irakurketarako aukera bakarra liburutegietako zerbitzu digitalak ziren.

Bestalde, funtsezkoa izan zen argialetxeen lankidetzak, haien tituluak aldi bereko lizentziak eskaini ahal izatea ahalbidetu baitzuen, eta horrek milaka erabiltzaileri gehien eskatzen zitzaizkien obrak aldi berean irakurtzeko aukera eman zien.

Era berean, 2020an 900 erosketa-eskaera baino gehiago jaso zituzten eLiburutegiaren erabiltzaileek.


Eskaera horiek jasotzen direnean, epub formatuan dauden guztiak erosten dira, eta eLiburutegian eskuragarri egon bezain laster, titulu hori eskatu duen pertsonari jakinarazten zaio. 2020a urte atipikoa izan bada ere, baiezta daiteke eLiburutegia sendotzen ari den zerbitzua dela eta, urtero, bazkide, mailegu eta titulu kopuruak gora egiten duela.

Mikel Arenaza

Liburutegi zerbitzua

Maileguak - hilabeteka


Bilakaera 2015 - 2020



Eduki digitalen eskaria, berez goranzkoa dena, argi eta garbi bultzatu da konfinamendu-hilabeteetan.

Erabiltzaile berriak


Bilakaera 2015 - 2020



Pandemiaren ondorioz, eLiburutegiaren erabiltzaile berrien kopurua ia hirukoiztu egin da beste urteekin alderatuta.

Liburuak




eLiburutegian



eLiburutegiak eutsi egin dio plataformara titulu berriak ekartzeko erritmoari.


Maileguak

Udaleriarren arabera



Normala denez, hiriburu handietan dago mailegu gehien...


Maileguak 1.000 biztanleko



... nahiz eta 1.000 biztanleko maileguen ehuneko handiagoa izan udalerrri txikiagoetan.


Maileguak 1.000 biztanleko

5.000 biztanletik gorako udalerriak




Maileguak 1.000 biztanleko

10.000 biztanletik gorako udalerriak




Mailegatuenak




Aitaren Etxea
Karmele Jaio
1.295




La cara norte del corazón
Dolores Redondo
1.184




El enigma de la habitación 622
Joël Dicker
1.125



Loba negra
Juan Gómez-Jurado
988




Reina roja
Juan Gómez Jurado
983




La nena
Carmen Mola
862



Los señores del tiempo
Eva García Sáenz de Urturi
837



La red púrpura
Carmen Mola
713




La novia gitana
Carmen Mola
685




Miñan
Amets Arzallus
Ibrahima Balde
666




La madre de Frankenstein
Almudena Grandes
607



Los ritos del agua
Eva García Sáenz de Urturi
566




Mailegatuena euskaraz



Aitaren
Etxea
Karmele Jaio
1.295



Miñan
Amets Arzallus
Ibrahima Balde
666



Amaren
eskuak
Karmele Jaio
484




Ezekiel
Jasone Osoro
461



Larumbatean
Bukowskin
John Andueza
389



Bidaia zoroa
Sagutxistanera
Geronimo Stilton
249




Amek
ez dute
Katixa Agirre
242




Eskularru
beltzak
Jasone Osoro
224




Ezekiel nora
ezean
Jasone Osoro
216



19
Kamera
Jon Arretxe
214



Beti
iparralderantz
Jon Arretxe
205



33
ezkil
Miren Gorrotxategi
192



LIBUR UTEGIAK



Giza biblioteka:

bizitza istorioak konpartitzeko espazioa

Kulturarteko Biblioteka programa 2007. urteaz geroztik dago martxan; Bizenta Mogel Bibliotekak eta Durangoko Udaleko Immigrazio sailak biblioteka eta bertako ekintzak, Durangon bizi diren kulturak elkartzeko eta integratzeko gune gisa erabiltzeko garatutako programa da. Urte hauetan zehar, hainbat herrialderi buruzko jarduera-programak egin ditugu (hitzaldiak, sukaldaritza-tailerrak, ipuin-kontalarien saioak, erakusketak), hala nola Boliviari, Palestinari, Errumaniari edo eremu geografiko zabalagoei buruzkoak, Magreb edo Afrikari buruzkoak.

2017. urtean, 10. urteurrena bete genuela aitzakiatzat hartuta, Durangon bizi diren eta orain udalerriko biztanleak diren pertsonen errealitatera hurbiltzeko saiakera egitea erabaki genuen, eta, horretarako, GIZA BIBLIOTEKA jarduera oinarritzat hartu eta "Bideak gurutzatuz: gure komunitatea osotzen duten migrazio arloko bizi istorioak" programazioa eratu genuen.

"Giza biblioteka" jarduerari esker, errealitate desberdinak lehen pertsonan entzuteko eta elkarrizketarako espazio bat sortzeko aukera eduki dugu.

Zer da Giza Biblioteka?

Giza Biblioteka egitasmoa 2000 urtean sortu zuen Stop the Violence GKEak Danimarkako Kopenhage hirian. Hasiera-hasieratik, gazteen arteko bazterkeria gutxitzea izan da ekimenaren helburua. Giza Bibliotekaren bidez, desberdintasuna gorai patzen da, eta sustatu egiten dira elkarrizketa, tolerantzia, ikaskuntza, eta beste bizitza-estilo eta kulturetatik datozen pertsonen elkar-ulertzea. Lehen esperientziak martxan jarri zirenetik, munduko 50 herrialde baino gehiagotara zabaldu dira giza bibliotekak. Ekimen honetarako bi osagai baino ez dira behar izaten: euren bizipenak kontatzeko prest dauden pertsonak eta istorio horiek entzun gura dituen jendea.

Zelan funtzionatzen du Giza Bibliotekak?

Giza Bibliotekara sartu eta bertoko katalogoa kontsultatzen duten erabiltzaileek, liburuak aurkitu ordez, kontatzeko moduko bizipenak dituzten pertsonak aurkitzen dituzte. Erabiltzaileak pertsona horiekin elkartu daitezke 20 minutuz, eta, haien istorioak entzuteaz gain, solasaldirako tarte ere izaten dute. Espazio honetan sortzen diren elkarrizketetan pertsona guztien esperientzia modu berean ikusarazten dira. Irakurleen eskura jartzen diren bizitza-istorioek ikasketa- eta enpatia-komunitatea sortzen dute, liburu tradizionalak edo adituek lor dezaketena baino askoz handiagoa. Irakurleek ohiko mugetatik haratago dauden egoerak, sentimenduak eta emozioak ezagutuko dituzte.



“Liburu” bakoitza kontsultatzeko 20 minutuak igaro ondoren, erabiltzaileak erabakiko du gehiago entzun nahi duen eta beste “bizi-istorio” batengana hurbilduko den ala ez.

Gure kasuan, ekimenak 2 ordu inguruko iraupena du eta, salbuespenak egon arren, hurbiltzen diren partaideek proposatutako “liburu” guztiak kontsultatzen dituzte.

2020. urtean “Bideak gurutzatuz” ekimenaren 4. edizioa izan dugu. Oraingo honetan, helburua durangarrei konpondu gabeko bi gatazka hurbiltzea izan da beren antzekotasun eta ezberdintasunekin, baina bi kasuetan giza eskubideen urraketa kasuak dituztenak, eta, ondorioz, sentsibilizazioa eta salaketa eskatzen dutenak: Mendebaldeko Sahara eta Palestina.

Horrela, Mendebaldeko Saharatik etorritako hiru pertsona eta Palestinatik etorritako edo palestinarrekin lotura duten hiru pertsona izan ziren azaroaren 26an liburu lanak egin zituztenak: Cabara, Hayeba, Hamudi, Rosa, Maria Jesus eta Husamek lehen pertsonan bizitako esperientziak kontatu zituzten, horietako batzuk gatazka-guneetan eta beste batzuk harrera- herrialdeetan, baina guztiek laguntzen dute espazio hau memoria berreraikitze eta erreparaziorako proiektu gisa proiektatzen. "Nostalgia", "Lurrik gabe, duintasunez", "Zauritutako herri baten malkoak", "Desberdintasun kulturalak bikote misto batean", "Israelen okupazio militarren mende dagoen Palestinako sufrimenduaren lekuko" eta "Nablus okupazioaren aurretik eta ondoren" dira gune honetara hurbildu ziren pertsonen kontsultatu eta entzun ahal izan zituzten liburuen katalogoa osatzen zuten tituluak. Sei istorio erreal, 6 lagunek kontatuak, Mendebaldeko Sahararen eta Palestinaren azken hamarkadetako historia markatu



duten esperientzia eta gertakarietara hurbiltzeko balio dutenak.

Ekimenaren programazioaren difusiorako urtero kartela, diptiko bat eta giza bibliotekako partaideekin bideo bat egiten ditugu. Aurten go bideoan, disponibilitate kontuengatik, 4 “liburu” bakarrik izan ditugu.

Orain arte, Giza Biblioteka, Bizenta Mogel Bibliotekan egin izan dugu. 2020. urtean, osasun larrialdi egoerak ezarritako segurtasun neurriak errespetatu eta parte-hartzaileen kopurua mantendu ahal izateko, San Agustin Kultur Gunera eraman dugu ekimena. 40 pertsona inguruk hartu zuten parte eta eurengadik jasotako balorazioa oso positiboa izan da.

Bibliotekak, ekimen honen bitartez, bere bilduma eta zerbitzuetatik haratago joateko ahalmena erakusten du; elkar ulertzeko eta hausnarketarako espazioak sortzeko ahalmena, alegia.

Esti Albizu

Bizenta Mogel Biblioteka



Giza biblioteka: bizitza istorioak konpartitzeko espazioa

Arantxa Arzamendi Sesé, liburuzaina

Liburuzain izateaz damutzen ez den profesionala

Susan Miller antzerkigileak esan zuen: "Erretiroaren gako gauza txikiez gozatzea da". Hemendik aurrera, Arantxa Arzamendik denbora gehiago izango du plazer txikiez gozatzeko: 40 urtez lanean ibili da, eta aurten hartuko du erretiroa. Bere ibilbide profesionaleko urte gehienetan liburuzain izan da, Kultura Ondarearen zuzendari ere izan zen, eta arreta berezia jarri zuen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen sorreran.




Donostia Kulturako Liburutegi Nagusian, Alderdi Ederreko egoitzan egin diogu elkarrizketa gure lanbidean inplikazio handia izan duen emakume honi. Astigarragan jaioa (1956), Historian lizentziatua da eta 1986an hasi zen lanean Donostiako Udal Liburutegian. 2000. urtetik Donostia Kulturako Liburutegi Nagusiko arduraduna izan da.

- Betidanik liburuzaina izan nahi zenuen?

Liburutegien ezagutza Batxilergoan izan nuen, garai hartan nire inguruan liburutegi gutxi zeuden baina bi liburutegi gogoratzen ditut. Alde batetik, ikastetxekoa, Asuncion Arrazola moja irakaslearen eskutik ezagutu nuena eta bestetik, Kontxako pasealekuan, gaur egun La Perla terraza dagoen lekuan, Aurrezki Kutxa Municipalak udan zabaltzen zuen liburutegia. Lagunekin maiz joaten nintzen bertan zeuden liburuak irakurtzera. Txikitatik izan naiz liburuzale eta irakurzalea, etxean gurasoek liburuak estimatzen eta zaintzen erakutsi zidaten.

Hala ere, ikasketak amaitu nituenean, ez nuen inolaz ere pentsatu liburuzain izatea, irakaskuntzan lan egin nahi nuen, eta Errenteriako Orereta ikastolan Batxillergoko ikasleei Geografia eta Historia irakasten ahalegindu nintzen, baina irakaskuntzarako nire dohainak eska-



Arantxa Arzamendi Sesé, liburuzaina

sak ziren. Irakaskuntza utzi egin nuen eta Gipuzkoako prentsaren historia ikertzen hasi nintzen. Garai hartan udalerrietan liburutegiak sortzen hasi ziren, eta oposaketak egiteko ikasten hasi nintzen. 1986an Donostiako Udal Liburutegian, Konstituzio plazako egoitzan hasi nintzen lanean eta bertan burutu dut nire ibilbide profesionala. Gaur harro esan dezaket liburuzain izateaz ez naizela damutzen, kultura arloan eta liburutegietan lan egitea esperientzia ona izan da, nahiz eta egoera zailak eta konplikatuak ere ezagutu.

Ibilbide profesionala disfrutatu dut, zaletasuna eta lana uztartzeko aukera eman dit.

- Liburuzaina izateaz gain, Kultura Ondarearen zuzendaria izan zinen.

Bai, 2002tik 2009ra Kultura Saileko Kultura Ondarearen zuzendaria izan nintzen. Liburutegien arloan Euskadiko Liburutegi Sistema eta Liburutegien legea ziren erronka nagusiak. Legea 2007an onartu zen (11/2007 LEGEA, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa) eta aldi berean Liburutegi Sistema abiaraztea lortu genuen. Egitasmo horren ardura nagusia Liburutegi Zerbitzuak izan zuen, eta EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen eta Lege Aholkularitzaren inplikazioa ere azpimarratu nahi dut. Bestalde, bidelagun izan genituen liburuzainei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Lankidetzaren hastapenak ez ziren errazak izan baina sare informatikoaren abantailak eraginkortasun handia izan zuten. Prozesu honetan liburuzaintzako etengabeko formakuntza azpimarratuko nuke, bai teknologia aldeko formakuntza eta baita zerbitzu berrien ingurukoa ere.

Gaur egun Irakurketa Publikoaren Sarea errealitate sendo bat da, eskaintzen diren zerbitzuak harrera ona dute eta eredugarri bihurtu da. Bazkideentzako txartel bakarra, Liburubila bilatzailea, Liburutegien Arteko Mailegu zerbitzua eta eLiburutegia... Garai haietan oso urruti ikusten zirenak gaur ezinbesteko bihurtu dira.



Arantxa Arzamendi Sesé, liburuzaina



- **Nola aldatu dira liburutegiak?**

80ko hamarkadaren hasieran Donostiako liburutegietan ez zegoen mailegu zerbitzurik. Liburutegietara nagusiki ikastera joaten ginen, edo bertan zeuden liburuak irakurtzera, ikerketak egitera. Noizean behin hitzaldiren bat antolatzen zen, baina orokorrean liburutegien xedea liburuak gordetzea eta zaintzea zen.

Gaur egun, berriz, liburutegiaren izaera eta antolaketa erabat aldatu dira. Gizartera egokitu beharrak malgutasuna eskatzen du, espazio eta zerbitzu berriak sortuz. Liburutegiak gordeleku izatetik informazio, formazio eta aisialdirako leku bihurtu dira. Bestalde, aurrerapen informatikoei esker erakundeen arteko lankidetzak erraztu da eta liburutegi sareak ditugu. Liburuzainen profila ere asko aldatu da, katalogazioko ohiko formakuntzaz gain, liburuzainak software eta hardware ezagutza, sare sozialak, eta beste hainbat arlo ezagutu behar ditu, kultura jardueren antolaketa barne. Liburutegia ezin da ulertu jarduerarik gabe: liburu aurkezpenak, idazleekin topaketak, poesia errezitaldiak edo literatur solasaldiak ohikoak bihurtu dira.

Irakurketa lehen bakarka egiten zen; orain, berriz, beste irakurleekin partekatzen da.

- **Liburutegiak aldatu dira hoberako?**

Zalantzarik gabe, liburutegien bilakaera oso positiboa izan da. Ni lanean hasi nintzenean idazmakina zen lan tresna bakarra eta ordenagailuak azaldu zirenean lan prozedurak errotik aldatu ziren. Denboran atzera egiten badugu, konturatuko gara XXI. mendeko liburutegiak jendearentzat hurbilagoak direla eta, aldi berean, zerbitzue-

tan teknologia inkorporatu dela. Jende askorentzat liburutegiak teknologian trebatzeko lekuak dira, bai ikastaroak eskaintzen direlako edo ordenadoreen erabilera errazten delako.

Etorkizuneko erronken artean, zerbitzu presentzialak eta digitalak batera eskaini edo uztartu beharra nabarmenduko nuke.

- **Etorkizunari begira, zein erronka izango dituzte liburutegiek eta liburuzainek datozen urteotan?**

COVID-19aren ondorioetako bat izan da liburutegietan eduki eta zerbitzu digitalen hazkundera. Lehendik ezagunak ziren hainbat proiektu indartu egin dira, baina zerbitzu presentzialak ez dira baztertu eta irakurleen estimua izaten jarraitzen dute. Etorkizunari begira, liburutegien eraldaketa prozesu bat aurreikusten dut, bi zerbitzu motak, hau da, presentzialak eta digitalak batera eskaini ahal izateko. Liburutegiek oinarrizko kultur ekipamenduak izaten jarraituko dute; bertan, besteak beste, liburuak, irakurtzen egoteko espazioak, wifia, Internet konexioa, eta kultur jarduerak eskainiko dira. Horretaz gain, dagoeneko hainbat zerbitzu eta eduki sare sozialen bidez eskaintzen dira: eLiburutegia, ipuin kontaketa, solasaldiak, aurkezpenak, etab. Baina liburutegiak orain arteko eksklusibotasuna galdu du, beste agente batzuk ere eduki digitalak eskaini ditzakete. Zerbitzu presentzialak eta digitalak aldi berean eskaini beharrak espazioaren aldaketa sortuko du, arkitektoek liburuzainekin batera liburutegi berriak diseinatu beharko dituzte edo lehengo espazioak birmoldatu. Azkenik, liburuzainen etengabeko formakuntza azpimarratuko nuke, sortuko diren lanbide berriak ahaztu gabe.



**Etengabeko formakuntza ezinbestekoa da, bai liburuzaintzat
bai irakurleentzat.**

- Zure aisialdian, zer gustatzen zaizu egitea?

Pandemia garai honetan aisialdiko ohiturak aldatu egin behar izan ditut eta gauza txikiekin gozaten ikasi dut. Lagunekin eta familiarekin gelditu ordez, harremanak mantentzeko telefonoa eta sare sozialak lehen baina maizago erabiltzen ditut. Etxean irakurtzen egoten naiz eta eskulanak ere egiten ditut. Erakusketak, ikuskizunak eta ibiltzera ateratzea beti izan ditut gustuko.



- Hemendik aurrera, zertan emango duzu denbora?

Kosta egiten zait hemendik aurrerako bizimodua nola antolatuko dudan aurreikustea, baina ziur nago kulturaren inguruan mugituko naizela, ez nuke ulertuko kulturarik gabeko mundu bat. Proiekturen bat egin nahiko nuke, adibidez ikerketa bat, eta artxiboetan miaketan ibiltzea gustatuko litzaidake. Oñatiko Protokoloen Artxiboa ezagutu nahi dut, eta baita Euskadiko Artxiboko funtsak ere. Bestalde, ariketa fisikoa egitea ere oso gomendagarria dela esaten digute, eta kontuan hartu beharko dut.

Ezin izango dut ulertu kulturarik gabeko mundu bat.

- Amaitzeko, gomendatuko dizkiguzu libururen bat eta filmen bat?

Duela gutxi, Olga Tokarczuk idazle poloniarren "Erabili goldea hilen hezurren ginetik" irakurri dut, Amaia Apalauza Ollo eta Sonia Kolaczek-ek itzulia. Liburu interesgarria iruditu zait, oso ondo itzulita dago eta solasaldi baterako oso aproposa da, hainbat gairi buruz hitz egiteko aukera ematen duelako. Polonian girotua dago, misteriozko trama bat dauka eta tramaren inguruan kritika sozial eta hausnarketa asko daude.

Azkenik eta elkarrizketaren harira, «Ex Libris: La Biblioteca Pública de Nueva York» Frederick Wiseman-en dokumentala gomendatu nahi dut; ikusi nuenean New Yorkeko liburutegiaren eraldaketa interesatu zitzaidan, bereziki nola gizarteratu den eta nola erantzuten dion gaur egungo beharrei.

Patricia Acebes

Liburutegi Zerbitzua



Booktuberboom_+, gazteak, liburuak eta sare sozialak lotzen dituen egitasmoa

Bueltan da Galtzagorri Elkarteak Liburutegi Zerbitzuarekin elkarlanean antolatu ohi duen egitasmo arrakastatsua. Aurten, ordea, berrikuntzekin dator eta euskal literatur liburuak sare sozial gehiagotara iritsiko dira Youtube, Instagram eta TikTok bezalako plataformen bitartez. Gazteek pantailetan ere literatura izango dute.

Egun, asko dira haien bizitzak, interesak, esperientziak eta gustuak mundu digitalean partekatzea bizi estilo bat bihurtu duten gazteak. Youtube, Twitter, Instagram edota TikTok bezalako sare sozialak dira erabilienak gaztetxoan artean horretarako. Honela ari dira sortzen geroz eta influencer edo moda eragile gehiago sare sozialetan, haiek esan, erakutsi edo egiten dutenarekin jarraitzaileak lortzen dituztenak.


Azken urteetan, literaturari loturik ere eman da fenomeno hau eta geroz eta ezagunagoak dira liburuak eta irakurritako istorioak sare sozialetan partekatuz irakurketa joerak sortzen dituzten influence-rrak. Orain arte bereziki Youtubeko plataforman gertatu da hau: booktuber deiturikoek haien liburu gustukoenen iruzkinak eskaintzen dituzte; irakurketa zerrendak edo wish list-ak egiten dituzte; eskuratu berri dituzten liburuen book haul katalogoa delakoa egiten dute; haien etxeetako apalategiak erakutsi bookshelf tour bat eginez; edota erronka eta jolasak proposatu book Tag edota book challenge-tan. Booktuber hauen bitartez, irakurgaiak sare sozialetan partekatu eta irakurle berri askorengana iritsi da irakurzaletasuna.

Booktuberboom lehiaketak lau edizio

Aipaturiko fenomeno delako eta, Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuarekin lankidetzan, Booktuberboom egitasmoa jarri zuen martxan 2017an. Euskal hiztunen artean booktuber komunitate bat osatzeko, euskal literatura sare sozialetan partekatzeko eta gazte euskaldunak irakurzaletzeko helburuarekin, dagoeneko 4 edizio egin dituen lehiaketa bat da egitasmo honen muina.

Lehiaketa booktube bideo bat sortzean datza. EAEko 14-18 urte bitarteko gaztetxoei liburu bat irakurtzeko eskatu edo gehien gogoko izan duten liburua hartu eta hari buruzko iruzkin bat eginez, youtubera liburu gomendatzeko bideo bat igotzea proposatzen zaie. Bideoa modu publikoan edo pribatuan igo dezakete plataformara eta horren arabera lehiaketako kategoria batean edo bestean lehiatzen dira. Partaide guztien artean, liburu egokia gomendatu duena, naturaltasunez aritu dena eta bereziki bere interesa eta plazera

Galtzagorri elkarteak eta Liburutegi Zerbitzuak antolaturiko egitasmoa



transmititzeko gai izan den gaztea bilakatzen du irabazle adituz osatutako epaimahai batek. Bestetik, bideoa publiko egin duten gazteen kategorian, publikoaren bozka sartzen da jokoan eta "gustuko dut" gehien jaso dituen booktuberrak jasotzen du Publikoaren Saria.



2020ko kedada lurretako liburutegian

Lehiaketak booktuber berrien sorrera sustatzen badu ere, egitasmoaren barruan beste hainbat dinamika ere egiten dira euskal booktuber mugimendua ahalbidetzeko. Izan ere, EAEko Liburutegi Zerbitzuarekin lankidetzan, Booktuberboom kedadak antolatu izan dira herri ezberdinetako liburutegietan. Kedada hauek euskal gazte booktuberren komunitatea osatzea dute helburu, horretarako gazteak liburutegietara hurbilduz eta liburuak eskuartean izanda, norbere interes literarioei buruz hitz eginez eta booktuber fenome-

noaren berri emanez. Era berean, euskal gazte literaturak sare sozialetan tokitxo bat eduki dezan, euskal aurpegi ezagunak ere animatu ohi dira booktuber bideo bat grabatu, haien liburu kuttunenak gomendatu eta egitasmoan parte hartzera. Gainera, egitasmoak Gaztea Irratiaren edota Sutan Bang kolektiboaren lankidetzara jaso izan du dinamika guzti hauek bultzatu eta hedatzeko.

Lau urtetan zehar egin diren dinamika guzti hauen bitartez, Galtzagorri elkarteak ikusi ahal izan du apurka-apurka euskal gazte booktuber komunitate bat eratzen dabilela eta euskarazko literatura gaztetxoan ahotan eta pantailetan ageri ohi dela sare sozialetan. Guztira, 240 booktube bideo baino gehiago sortu eta 30 bat kedada egin dira urteotan eta badira egitasmoan urtez urte partehartzea errepikatu duten gazteak eta, hortaz, komunitatean ezagun bilakatzen ari diren booktuberrak. Jon Martin (@jonmar) edota Beñat Chaves booktuberrak dira horren seinale, behin baino gehiagotan garaile atera diren bi gazteak. Era berean, Booktuberboomeko sare sozialetan (Instagram edo Youtubeko kanaletan) eta blogean (<https://booktuberboom.wordpress.com/>) eskaini ohi diren edukiei esker, geroz eta jarraitzaile gehiago dira Euskal Gazte Literaturaren berri jasotzen duten gazteak. Baina horretaz gain, eman dira eraginak ere eskoletan. Geroz eta ikastetxe gehiagok baliatu ohi dute dinamika hau euren hezkuntza programan sartu eta irakurketaren lanketa sormen eta plazeraren bidetik jorratzeko. Beraz, arrakasta honek bidea zabaltzen du proiektuarekin jarraitu eta berrikuntzaz beteriko bosgarren edizio bati gogoz heltzeko.



Booktuberboom_+ dator: booktuber, bookstagramer eta booktokerren ataria

Galtzagorri elkarteak prest da 2021ean Booktuberboom_+ deituriko edizio berria martxan jartzeko, inoiz baino berritzaile eta ausartago datorrena. Izan ere, egun, liburuekiko zaletasuna partekatzeko fenomeno hau Youtubeko plataforman emateaz gain, beste sare soziale-tara ere iritsi da, bereziki Instagram eta TikTok aplikazioetara. Hori dela eta, Galtzagorri elkartetik, bookstagramer eta booktoker euskaldunak sortu eta ezagutarazteko ahalegina ere egin nahi da, proiektuan bi sare sozial hauei loturiko egitasmoa txertatuz. Hortaz, Booktuberboom_+ booktuberren ataria ez ezik, bookstagramer eta booktokerren atari ere bilakatuko da.

Oinarrian booktuber lehiaketak bere horretan jarraituko du. Baina bertan parte hartzen dutenek aukera izango dute Instagram eta TikTok sareetan ere euren liburua gomendatu eta sari berriak eskuratzeko. Bookstagramer bilakatu eta Instagramen parte hartzen dutenek, Instagram kontu batean booktube lehiaketara aurkeztu duten liburuarekin loturiko argazki bat igo beharko dute: book-selfie bat izan daiteke (liburuaren argazki artistiko bat), liburuako pasarte bati loturikoa, liburuak inspiraturiko objektu, momentu edo paisaia baten argazkia... eta argazkiaren deskribapenean, liburutik gehien gustatu zaien esaldia edo testu zatia idatzi beharko dute. Aldiz, booktoker bilakatu eta TikToken parte hartzen dutenek, TikTok kontu batean booktube lehiaketara aurkeztu duten liburuarekin loturiko bideo muntaia labur bat igo beharko dute, liburutik gehien gustatu zaiena aipatzen duten fotogramak erabiliz, liburuarekin loturiko datuak eskainiz, antzeko liburuak gomendatuz... Musika, efektuak, hitzak... sartu daitezke. Ezaugarri nagusia, bideo azkarra, arina eta



liburuarekiko interesa pizteko adinakoa izatea da.

Moda berrietara batzen hasita, V. edizioan online booktuber keda-dak ere egingo dira, betiko liburutegietako bertatik bertarako keda-dak egiteaz gain. Iaz bezala, Booktuberboom Youtube saioa antolatu-tuko du Galtzagorri elkarteak. Youtubeko Booktuberboom kanalean bost bat ataletan banatutako gazte literaturari buruzko saioa ikusi ahal izango da, ikus-entzunezkoa den podcast estiloan: liburu gomendioak, sortzaileei elkarrizketak, erronkak, irakurketak... Guztia youtuberren estiloan, TAG, HAUL eta #challenge askorekin. Guztiz interesgarria ikastetxeetan ikusi eta literaturaz aritzeko tarte bat irekitzeko.


Izan ere, ukaezina da sare sozialen erabilera eta garrantzia egungo gazteen artean. Egiaz, sozializazio eremu bat bilakatu da, iritziak eta interesak partekatzen dituzte, elkarrizketak izan, esperientziak konpartitu... Hortaz, irakurketa ekintza sozial bilakatu nahi badugu eta literaturaren eraikuntza partekatuan sinesten badugu, liburuak sarean barreiatzea ezinbestekoa izan daiteke. Horrexegatik abian da Booktuberboom_+ eta eman liburuei "gustuko dut"!.

Intza Alkain

Booktuberboom_+ en koordinatzailea



Sarea zifratan



Aurten ere, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen datu estatistiko garrantzitsuenak aurkezten ditugu. Ziur asko, 2020ko datuek alde nabarmenak izango dituzte aurreko urteekiko, eta denok dakigu zergatik: COVID19a eta liburutegi-zerbitzuetan eragin izan dituen albo-ondorioak. Jakina denez, martxoaren erdialdetik ekainaren hasierara arte, konfinamenduak EISPko liburutegiak ixtera behartu zuen, eta, berriz ireki ondoren, hilabete batzuetan dokumentuak maileguan baino ezin izan ziren hartu, eta zerbitzuak zabalitzen joan ziren, osasun-agintariek deseskaladaren fase bakoitzerako emandako aholkuei eta gomendioei jarraituz.

Maileguei dagokienez, 2020an 1.746.814 mailegu egin ziren, hau da, 2019an baino% 34 gutxiago. Eta 20.958 pertsona egin ziren sareko liburutegietako bazkide. Bestalde, liburutegien arteko maileguari dagokionez (LAM), urtez urte gora egiten baitu, 2020an 205.313 eskaera egin dira, eta aurreko urtean 120.000. Horrek erakusten du zerbitzu hori Sareko erabiltzaileen artean ezaguna eta erabilia dela.

Sareko liburutegien funts bibliografikoa 22.727 titulu berriekin aberastu da eta 207.238 ale sartu dira. Hori dela eta, katalogoak 1.368.826 titulu eskaintzen ditu, hau da, 2019an baino% 12 gehiago.

Azkenik, OPACen egindako bilaketak 2019an 2.978.100 kontsulta izatetik 2020an 2.519.662 izatera igaro dira.

Lehen esan dugun bezala, datu horiek guztiak urte zail baten emaitzak dira, bai pertsonen mugikortasunari aplikatutako murrizketengatik, bai espazio sozial edo kulturaletako edukiera-eskakizunengatik. Horren ondorioek aurrez aurreko liburutegi-zerbitzuei eragin diete, eta hori egiaztatu egin da gutxienez, atipiko izan den urtearen datu estatistikoetan.

Mailegatuena...

1.897

La cara norte del corazón

1.891

La danza de los tulipanes

1.735

Loba negra

2.250

Naruto Uzumaki

2.015

Dragonball

600

Diario de Greg 14

586

Joker

577

Parásitos

531

Érase una vez en Hollywood

557

Coco

451

Dumbo

363

Hotel Transilvania

79

Limones en invierno

60

Salto al color

48

The platinum collection

13

Astérix

9









Vaiana

5

Frozen



Mailegatuneak... (euskaraz)



Bi hitzetan

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko profesionalentzako konpetentzia gaitasun digitalen lanbide-profila diseinatzeko lantaldea

Ikanos Eusko Jaurlaritzaren aterki ekimen bat da, konpetentzia gaitasun digitalak ezagutarazteko, kontuan har daitezzen lortzeko eta gizarte osoari (pertsonak, enpresak eta erakundeak, eta sektore ekonomiko eta sozialak) haien aurrerabidea eta egiaztapena errazteko.

Balio-proposamena da Ikanos jarduketaren eredu bat eskaintzea. Eredu horrek hobekuntza-prozesu bat marrazten du, ibilbide-orri pertsonalizatuarekin, errealitateari lotutako eta tresna oso praktikoetan oinarritutako helburuei buruzko urratsak emateko, Europako Batzordearen DigComp kontzeptu-esparruan oinarrituta.

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikiak, Euskadiko Sareko liburutegietako kolektibo profesionalentzat profil digital bat sortzeko aukera aztertu nahi du, eta 2020an bilera bat eskatu zen Ikanos ereduaren arduradunekin lan-kidetzan aritzeko aukerak zehazteko.

Bilera horretatik aurrera, lantalde bat sortu zen sareko liburutegi batzuekin eta ALDEEren parte-hartzearekin. [Ikanos ereduaren](#) babesean, lantaldeak, lehen urrats batean, profil digital bat egin du, EISPko liburutegi batean lan egitera sartzen den pertsona orok egiaztatu beharko lukeena, eta gure kolektiboaren gaitasun digitalak egiaztatzen dituen test bat diseinatu da. Esteka honetan topako duzue "udal liburuzainaren profil digitala".


[Konpetentzia digitalen profil profesionala. Euskadiko Udal Liburuzaina \(pdf, 928 KB\)](#)



Helburua 2021ean proiektu hau garatzen jarraitzea da, eta maiatzetik aurrera honako hauek lortu nahi dira:

- Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiei testa bidaltzea.
- Test horren emaitzak jaso eta aztertzea.
- Gure gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza-plan bat diseinatzea.
- Gure kolektiboarentzat BAIT ziurtagiria ezartzeko aukera aztertzea.

Hasierako lantaldea Aldee, Getxo, Leioa, Anoeta eta Errenteriako liburutegietako eta Liburutegi Zerbitzuko profesionalek osatu dute, Ikanos ereduaren arduradunen laguntzarekin.



LIBURUTEGIAK

2020



© 2021

Eusko Jaularitzako Liburutegi Zerbitzuak
argitaratua.

Posta elektronikoa
liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

LG: SS 1509-2005

